# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak
# ASTEKO LABURPENA

2018ko maiatzaren 28tik ekainaren 1erako astea.

---

## ➢ INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

## ➢ ASTE HONETAN MERKATUETAN

## ➢ GURE IKUSPEGIA

# INGURU MAKROA



# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## EUROGUNEA: PMI




### Datuaren analisia

uroguneko manufakturen sektorearen hazkundea geldotu egin zen maiatzean, **PMI manufaktura-dizeak** adierazten duen moduan; izan ere, 55,5ean kokatu baitzen, apirileko 56,2tik, azken 15 labeteetako daturik baxuena. Urteko bosgarren hilean, indizeak ekoizpenaren eta eskari berrien azkunde motelago" bat erakutsi zuen, baita esportazioena ere.

### Adierazlearen azalpena

MI Manufaktura-indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboei euroguneko anufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren ektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko urreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko alio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, konomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkurtzen ari den einale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

## AEB: LANGABEZIA-TASA




### Datuaren analisia

**ıngabezia-tasa** % 3,8ra jaitsi zen maiatzean, azken 18 urtetako ehunekorik txikiena, 223.000 npostu berri sortu baitziren. Datuek kontsultaturiko adituen aurreikuspenak gainditu dituzte, )0.000 enplegu sortuko zirela eta langabezia-tasa % 3,9rainokoa izango zela aurreikusi baitzuten. ɔlanahi ere, Estatu Batuetako ekonomia enplegu betetik oso hurbil egon zen berriro. Soldaten ıtez bestekoa % 0,3 igo zen, eta lan-indarreko parte-hartze tasak, lanean edo enplegu bila dauden ıtatubatuarren proportzioak, pixka bat behera egin zuen, % 62,8tik % 62,7ra.

### Adierazlearen azalpena

nplegu-txostena hilero argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-ıerkatuaren adierazle bat da, langabezian erregistratuta dauden pertsonen ehunekoa neurtzen uena. Datua kalkulatzeko formula hau erabiltzen da: langabe kopurua zati lan-indarra osatzen uten pertsona guztiak. Langabezia-tasa txikiago batek kontsumitzaileen gastua handituko dela agartzen du, eta aldi berean, hazkunde ekonomikoa dakar. Aitzitik, langabezia-tasa handiagoek zegonkortasun ekonomikoa erakusten dute.

# INGURU MAKROA

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA




### Datuaren analisia

**dustria-ekoizpenak** % 0,3 egin zuen aurrera apirilean, aurreko hilarekin alderatuta. Igoera hori artxokoa baino txikiago izan zen, indizea % 1,4 hazi zenean. Urteko laugarren hilabetean, ıponiako industria-ekoizpenaren igoerari ekarpen handiena egin zioten industriak honakoak izan ren: garraio-ekipamenduak, erabilera orokorreko makineria, negozioetara bideratutako ekoizpena a makineria eta metal fabrikatuak. 2017ko apirilarekin alderatuta, indizea % 2,5 igo zen.

### Adierazlearen azalpena

ıdustria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den npresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-ektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. konomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen nalisia egiteko.

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## TXINA: CAIXIN PMI MANUFAKTURA-INDIZEA




### Datuaren analisia

larkit/Caixinek prestatzen duen manufakturen indizean ez zen aldaketarik egon maiatzean 51,1). Gainera, analistek aurreikusitako 51,0tik gorakoa izan zen datu hori. Ekoizpenaren eta txeko negozioen sendotzeak esportazio-eskari berrien bigarren beherakada arindu zuen.

### Adierazlearen azalpena

MI Manufaktura-indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboei manufaktura-ektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean konomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, este adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu onetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ri dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkurtzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

# KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

| Data | Eremua | Adierazlea | Aurreik. |
|---|---|---|---|
| 06/04 | Eurogunea | Sentix inbertsiogilearen konfiantza | 18.5 |
| 06/04 | Eurogunea | Hileko ekoizpenaren prezioen indizea | % 0,2 |
| 06/04 | Estatu Batuak | Fabrika-eskariak | -% 0.5 |
| 06/04 | Estatu Batuak | Ondasun iraunkorren aginduak | -- |
| 06/05 | Japonia | PMI Nikkei zerbitzuak Japonia | -- |
| 06/05 | Japonia | PMI Nikkey composite Japonia | -- |
| 06/05 | Txina | Txinako Composite PMI Caixin | -- |
| 06/05 | Txina | Txinako PMI zerbitzuak Caixin | 52.9 |
| 06/05 | Espainia | Markit PMI zerbitzuak Espainia | 56.0 |
| 06/05 | Espainia | Markit PMI Composite Espainia | 55.6 |
| 06/05 | Italia | Markit/ADACI Italia zerbitzuak PMI | 53.0 |
| 06/05 | Italia | Markit/ADACI Italia Composite PMI | 52.8 |
| 06/05 | Frantzia | Markit Frantzia Zerbitzuak PMI | 54.3 |
| 06/05 | Frantzia | Markit PMI Composite Frantzia | 54.5 |
| 06/05 | Alemania | Markit Alemania Zerbitzuak PMI | 52.1 |
| 06/05 | Alemania | Markit/BME Alemania Composite PMI | 53.1 |
| 06/05 | Eurogunea | Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI | 53.9 |
| 06/05 | Eurogunea | Markit PMI Composite Eurogunea | 54.1 |
| 06/05 | Erresuma Batua | Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI | 53.0 |
| 06/05 | Erresuma Batua | Markit/CIPS RU Composite PMI | 53.4 |
| 06/05 | Eurogunea | Hileko xehekako salmentak | % 0.5 |
| 06/05 | Estatu Batuak | Markit AEB Zerbitzuak PMI | 55.7 |
| 06/05 | Estatu Batuak | Markit PMI Composite AEB | -- |
| 06/05 | Estatu Batuak | Composite ISM ez manufaktura-sektorea | 57.6 |
| 06/06 | Espainia | Hileko industria-ekoizpena | -% 0.2 |
| 06/06 | Eurogunea | Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI | -- |
| 06/06 | Estatu Batuak | Lan-kostu bateratuak | % 2.8 |
| 06/06 | Estatu Batuak | Balantza komertziala | -$49.1b |
| 06/07 | Japonia | CI lider indizea | 105.6 |
| 06/07 | Alemania | MoM fabriken aginduak | % 0.8 |
| 06/07 | Frantzia | Balantza komertziala | -5100m |
| 06/07 | Italia | Hileko xehekako salmentak | % 0.1 |
| 06/07 | Eurogunea | Hiruhileko BPGd SA | % 0.4 |
| 06/07 | Estatu Batuak | Hasierako langabezia-eskaerak | 225k |
| 06/08 | Japonia | Hiruhileko BPGd SA | - % 0,1 |
| 06/08 | Alemania | Balantza komertziala | 20.2b |
| 06/08 | Alemania | Hileko SA industria-ekoizpena | % 0,3 |
| 06/08 | Frantzia | Hileko industria-ekoizpena | % 0,3 |
| 06/08 | Frantzia | MoM manufaktura-ekoizpena | % 1.3 |
| 06/08 | Erresuma Batua | Datozen 12 hilabeteetako inflazioa BoE/TNS | -- |
| 06/08 | Estatu Batuak | Hileko handizkako merkataritza-salmentak | -- |
| 06/08 | Txina | Balantza komertziala | 32.70b $ |

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

kutxabank gestión

## JRTSA:

ıte negatiboa Europa eta Asiako burtsetan, eta mistoa ar Amerikako indizeetan. Ziurgabetasun politikoa eta ındu mailako gerra komertzial handi baten beldurra izan en beherakada horien kausa nagusiak. Italian, uteskundeak aurreratuz gero, gobernu euroeszeptiko bat ıteko aukerak eragin handia izan zuen merkatuetan, ia te osoan. Ostiralean, baina, beherakada hori zuzendu in zen hein batean, M5S eta Lega Nord alderdiek ɔposaturiko zerrenda berria ezagutzera eman zenean. ın ere, Mattarellaren oniritzia jaso zuen zerrenda horren ɜbera, Giussepe Conte izango litzateke lehen ministroa, ɜ betoa duen Savonak atzerri-ministroaren kargua rtuko luke. Italiako egoera politiko nahasi horri ɜpainiako ziurgabetasuna gehitu zitzaion, PSOEk ıjoyren gobernuaren aurkako zentzura-mozioa aurkeztu doren. Mozioa onartu egin zen azkenean, eta gobernuko ɜsidente bihurtu zen Pedro Sanchez. AEBetan, bestalde, 3, Kanada eta Mexikori altzairu eta aluminioaren ɔortazioei muga-zergak ezartzeko salbuespena eteteko garpenak mundu mailako gerra komertzial handi bat :teko beldurra bizitu zuen. Horiek horrela, tentsioa nditu egin zen bankan, aste honetako sektorerik ɟortuena, Italia eta Espainiako egoera politikoaren dorioz.

| INDIZEAK | PREZIOA | % Aldaketa % Astean | Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| MSCI WORLD (Local) | 1.599,43 | -0,08 | 0,83 |
| IBEX 35 | 9.632,40 | -1,98 | -4,10 |
| DJ EURO STOXX 50 | 3.453,54 | -1,76 | -1,44 |
| DJ STOXX 50 | 3.085,27 | -1,02 | -2,91 |
| FTSE | 7.701,77 | -0,37 | 0,18 |
| S&P 500 | 2.734,62 | 0,49 | 2,28 |
| Dow Jones | 24.635,21 | -0,48 | -0,34 |
| NASDAQ | 7.554,33 | 1,62 | 9,43 |
| NIKKEI 225 | 22.171,35 | -1,24 | -2,61 |
| MSCI GORAKORRAK (Lo | 60.697,63 | -0,50 | -0,30 |
| MEXBOL | 45.013,13 | -0,17 | -8,80 |
| BOVESPA | 77.239,75 | -2,10 | 1,10 |
| SHANGHAI | 3.220,88 | -2,10 | -7,00 |
| Errusia Rts Mosku | 1.164,37 | -0,48 | 0,86 |

## ƎRENTA FINKOA:

ılia eta Espainiako ziurgabetasun politikoak ɟgazkortasun handia eragin zuen zor subiranoan, batez e Italia eta Espainiako arrisku-primetan, baina Italiako ɔbernuaren osaketak eta Espainiako zentzura-mozioaren ırrera ateratzeak merkatuak baretu zituen. Horrela, ɜpainiako diferentzialak ez zuen ia aldaketarik izan ıtean. Hamar urterako tasa, aldiz, 2 op jaitsi zen, % 44raino. Bestalde, babes-aktibo izan zen core zorraren rentagarritasunek atzera egin zuten pixka bat. Hamar terako bonu alemaniarra 2 op jaitsi zen eta epe bereko ınu amerikarra 3 op. Kreditu-merkatuak ere ɟgazkortasun handia izan zuen, baina pixka bat hazi zen ıtearen amaieran.

| Gobernuen tasak | Maila | Aldaketa Astean | Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| ALEMANIA 2 URTE | -0,63 | -0,01 | 0,00 |
| ESPAINIA 2 URTE | -0,07 | 0,09 | 0,28 |
| AEB 2 URTE | 2,47 | 0,00 | 0,59 |
| ALEMANIA 10 URTE | 0,39 | -0,02 | -0,04 |
| ESPAINIA 10 URTE | 1,44 | -0,02 | -0,13 |
| AEB 10 URTE | 2,90 | -0,03 | 0,50 |
| ALEMANIA 30 URTE | 1,08 | -0,05 | -0,18 |
| ESPAINIA 30 URTE | 2,56 | -0,06 | -0,29 |
| AEB 30 URTE | 3,05 | -0,04 | 0,31 |
| **Kreditu-spreada (op)** | | | |
| MARKIT ITRX EUROPE 06/23 | 67,68 | 2,58 | 22,76 |
| MARKIT ITRX EUR XOVER 06/23 | 296,91 | 1,63 | 64,48 |

## BISAK/LEHENGAIAK:

ɔrkizunean gobernu euroeszeptiko bat izateko ɜhatxuak euroa azken hamar hilabeteetako minimoetara ɜman zuen, baina Italiako gobernuaren osaketari esker, ıropako dibisak galdutako eremua berreskuratu zuen, eta larraren aurrean balioa handitzen amaitu zuen astea. hengaiei begira, petrolioaren prezioa % 0,47 igo zen, 'EEko herrialdeetan ekoizpena handitzeko dauden kerak gorabehera. Urrearen balioak, bestetik, % 0,61 in zuen atzera, 1.293,73 $/ontza mailaraino.

| Dibisak | Maila | %Aldaketa Astean | % Ald 2018 |
|---|---|---|---|
| Dolarra / Euroa | 1,17 | 0,03 | -2,97 |
| Yena / Euroa | 127,73 | 0,09 | -5,64 |
| Libera / Euroa | 0,87 | -0,20 | -1,68 |

| Lehengaiak | Maila | % Aldaketa Astean | % Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| Petrolioa (Brendt) | 76,21 | 0,47 | 14,05 |
| Urrea | 1.293,73 | -0,61 | -0,72 |

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.